



Gobernuaren Ordezkariordeztza Gipuzkoan, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko Ministerioari atxikiak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean esleitutako eginkizun guztiak betetzen ditu, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren lurraldean dauden Erakunde publikoen zerbitzu guztiak hobetzeko ekimenak koordinatuz, gainbegiratuz eta bultzatuz.

Ematen ditugun zerbitzuak

- Herritarrentzako informazioa eta arreta.
- Emakumearen aurkako indarkeria.
- Etorkinentzako zerbitzuak Espainian.
- Enpleguarekin edo emigranteekin lotutako zerbitzuak.
- Unibertsitate-tituluak legeztatzea eta unibertsitate-tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak jaso, erregistratu eta ematea.
- Lehergailuekin eta pirotekniarekin lotutako espedienteak izapidetzea.
- Desjabetzeak. Balio justuaren espedientea izapidetzea.
- Estatuaren esku-hartzea larrialdi edo hondamendi egoeretan.
- Nazioarteko txertaketa.
- Farmazia ikuskaritza.
- Kanpo-osasuna.
- Landare-osasuna: inportazioaren/esportazioaren kontrol fitosanitarioa.
- Albaitaritza-osasuna: inportazioko/esportazioko albaitaritza kontrola.
- Itsas arrantza.
- Tasak itzultzea.
- Administrazio-zehapenei dagozkien espedienteak.
- Administrazio-baimenen eskaerak.
- Enpresentzako eta beste administrazio batzuentzako zerbitzuak.

Kalitate-konpromisoak

- Edozein bide erabiliz jasotako kexei erantzutea, Gobernuaren Ordezkariordeztzan sartzen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean.
- Atzerritarren Bulegoan arreta jasotzeko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 21 egun balioduneko epean.
- Nazioarteko txertaketa-zerbitzuetarako aurretiko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 10 egun balioduneko epean.
- Leherketa berezien enpresen baimen-eskaerak ebaztea, aurreko baimena iraungi baino gehienez 3 egun baliodun lehenago, betiere beharrezko dokumentazioa jasotzen bada.
- Segurtasun-enpresetarako armazainen baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, Armen eta Lehergaien Kontuhartzaitzaren aldeko txostena jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Lehergailuak hornitzeko baimen-eskaerak gehienez 3 egun balioduneko epean ebaztea, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Erregistro Arloko Laguntza Bulegoan arreta emateko aurretiko hitzordua ematea, eskaera jasotzen denetik gehienez 5 egun balioduneko epean.
- Informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei erantzutea, Atzerritarren Bulegoari, Hezkuntza Arloari, Lan eta Immigrazio Arloari eta Desjabetze Epaimahaiari izan ezik, posta jasotzen denetik gehienez 2 egun balioduneko epean.
- Herritarrei Informazioa eta Arreta Emateko Bulegoan/Erregistroen arloko Laguntza Bulegoan informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei 2 egun balioduneko epean erantzutea, posta jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Hezkuntza Arloari buruzko informazioa eskatzen duten mezu elektronikoei gehienez 2 egun balioduneko epean erantzutea, posta jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Tituluak homologatzeko eta baliokidetzeko eta sinadurak aitortzeko prozesuei buruz Hezkuntza Arloan telematikoki aurkeztutako informazio-eskaerei gehienez 2 egun balioduneko epean erantzutea, informazio-eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Kartaren unitate arduraduna:

Gobernuaren Ordezkariordeztzako Gipuzkoako Idazkaritza Nagusia

Pio XII, plaza 6 – 20010 Donostia/ San Sebastián

943 989 000

secretario_general.gipuzkoa@correo.gob.es

https://mpt.gob.es/portal/delegaciones_gobierno/



Kontsultatu hemen zerbitzuen
kartaren testu osoa



Argitaratzen du: Lurralde Politikako eta
Memoria Demokratikoko Ministerioa
NIPO: 127-24-007-7